



**2023KO MAIATZAREN 4KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren lauan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN BIGARREN ALDAKETA ESPEDIENTEAREN HASIERA.-

Kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren zuzendaritzak kontratua aldatzeko beharra adierazi dio kontratazio organoari.

Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen esleipena 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran erabaki zen eta lan hauek Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ri esleitu zitzaizkion lau milioi hogeita hamabost mila berrehun eta hirurogeita hamahiru euro eta hirurogeita hiru zentimo (4.035.273,63 €) gehi BEZari dagokion zortziehun eta berrogeita zazpi mila laurehun eta zazpi euro eta berrogeita sei zentimo (847.407,46 €)ko prezioan.

Kontratua 2022ko maiatzaren 3an formalizatu zen, eta zuzenketa egiaztatzeko akta 2022ko ekainaren 6an egin zen, kontratista ados zegoela.

2022ko apirilaren 4ko Tokiko Gobernu Batzordean obra-zuzendaritza zerbitzua Jovino Martinez Sierrari esleitu zitzaion.

2022ko urriaren 13an, Osoko Bilkurak, obra zuzendaritzak aldatutako lehen proiektu bat idaztea onartu zuen, metalezko pasabide bat egin behar zelako, aurrefabrikatutako egitura aldatu zelako eta euste-lanak eta lur-mugimenduak aldatu zirelako. 2022ko urriaren 27an egin zen bilkuran berriz, kontratu hau aldatzeko espedientea onetsi zuen.

2. azpifaseari dagozkion hondeaketa-lanak eta lur-mugimenduak egin diren bitartean, azterlan geoteknikoan jasotzen zen ur-kantitatea baino nabarmen handiagoa hauteman da.

Lurrak mugitzeko eta hondeatzeko lan horietan bertan, saneamendu-kutxatila bat agertu da 2. azpifaseko jarduketaren eremuan. Bertan, bi saneamendu-sare daude, bata San Jose auzotik datorrena eta bestea kanpoko igerilekuen goiko eraikinetik datorrena.

Bestalde, Udalak egungo igerilekurako eta berrirako megafonia-zentral bakar batean bateratu behar duenez, eta proiektua idatzi osteko EN54 araudi berrira egokitu behar duenez, beharrezkotzat jotzen da egungo igerilekuko megafonia zabaltzea eta ordeztea, eta zentral berri bat egitea multzo osorako.

Ilonez gain, obrak iraun bitartean ahal den neurrian murriztu nahi izan da obrak zentroko erabiltzaileen jarduerarekin izan dezakeen eragina. Horretarako, kontratak sarbideen kudeaketa desberdina proposatu du fase desberdinetako lanak egiteko eta igerilekua ez ixteko, jarduera etenik gabe mantenduz.

Behatutako zirkunstantzien eta ezaugarrien errealitatea ikusita, obra-zuzendaritzak txosten bat egikaritu du. Bertan beharrezkoak diren jarduketa berriak proposatu ditu. Batetik, obran zehar hauteman diren eta Proiektu Teknikoa egiteko unean kontuan hartu ezin ziren ezusteko kausa teknikoak, eta bestetik, kontratisten lan-fluxuen bateraezintasun-arrazoi teknikoak direla-eta, sarbideak egiteko behar diren jarduketak beste kontratista batek egiteak sortuko lukeen bateraezintasuna oinarritzat hartu ditu, eta beharrezkotzat jo du behar diren aldaketak jasoko dituen proiektu bat egitea, proiektua bera modu egoki batean egikaritu dadin.


Aldatutako proiektuaren kontrata bidezko aurrekontua, guztira (BEZik gabe), 221.378,83 eurokoa da.

Aldaketa horien proposamenean egin beharreko jarduketa berriek ez dute obra-epaia luzatuko.

Aipatutako inguruabarren ondorioz, obra-kontratuaren aldaketa beharrezkoa jotzen da.

Kontratua aldatzeko beharra, bi arrazoiek eragiten dute beraz:

- 1) Kontratua lizitatu zen unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortutako inguruabarrek. Eta kontratua aldatu ahal izateko bete behar diren baldintza hauek betetzen direla esan dezakegu:
 - a. Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezin izan dituen inguruabarretatik dator aldaketaren beharra.
 - b. Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez du aldatzen.
 - c. Kontratua aldatzeak kontratuaren zenbatekoa aldatzen badu ere, lehen kontratu aldaketaren eta bigarren kontratu aldaketaren baturak ez du hasierako prezioaren ehuneko 50 gainditzen, BEZik gabe.
- 2) Hasieran kontratatutakoez gain beste obra batzuk gehitu behar izateak, honako baldintza hauek betetzen direlarik:



- a. Arrazoi teknikoengatik kontratista aldatu ezin izatea eta, kontratistaren aldaketak berak kontratazio-organoarentzat sortuko lituzkeen eragozpen nabarmenak direla eta.
- b. Kontratua aldatzeak kontratuaren zenbatekoa aldatzen badu ere, lehen kontratu aldaketaren eta bigarren kontratu aldaketaren baturak ez du hasierako prezioaren ehuneko 50 gainditzen, BEZik gabe.

Horregatik guztiagatik, baimena eskatzen da Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren aldatutako bigarren proiektua idazteko eta izapidetzeko.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta Hirigintza Etxebizitza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 5 abstentzioz (EH-Bildu) eta aurkako botorik gabe, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu du.

II.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 7., 8. ETA 9. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen hiru obra egiazttagiri egin dituzte.

Zazpigarren obra egiazttagiria BERREHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI MILA EHUN ETA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOKoa (238.117,79 €) da, BEZa barne.

Zortzigarren obra egiazttagiria BERROGEITA HAMABI MILA EHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMOKoa (52.124,65 €) da, BEZa barne.

Bederatzigarren obra egiazttagiria EHUN ETA LAUROGEITA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMOKoa ===== (192.338,85 €) da, BEZa barne.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela, proiektuarekin ados ez daudelako.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hauek onartu ditu.

III.- ABALAREN ITZULKETA (TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L., 2020KO KONTRATUA).-

2020ko urriaren 1ean, Osoko Bilkurak Lazkaoko instalazio elektrikoak mantentzeko zerbitzuaren kontratua TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L. enpresari esleitu zion, eta beronek 6.757,46 €-ko abala aurkeztu zuen Udalean, zerbitzua zuzen eta behar bezala burutzeko berme gisa.

Kontratua eta, beraz, berme-epea amaiturik, TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L.-k 2023ko otsailaren 6an Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoan sarrera eman dion eskaeraren aurrean, eta Udal teknikariak burutu duen txostenean oinarriturik, Osoko Bilkura honek aho batez 6.757,46 €-ko behin-betiko bermea deuseztatzea erabaki du.

IV.- ABALAREN ITZULKETA (EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A., 2017KO KONTRATUA).-

2017ko ekainaren 27an, Osoko Bilkurak etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A. enpresari esleitu zion, eta beronek 14.645,20 €-ko abala aurkeztu zuen Udalean, zerbitzua zuzen eta behar bezala burutzeko berme gisa.

Kontratua eta, beraz, berme-epea amaiturik, EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A.-k 2023ko apirilaren 21ean Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoan sarrera eman dion eskaeraren bitartez, abalaren itzulketa eskatu du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du enpresak ez duela euskara eskakizuna betetzen, Udalarekiko harremanetan gaztelania soilik erabili baitu. Alkatea ere ados agertu da berarekin.

EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A.-ren eskakizunaren aurrean, eta Udal teknikariak burutu duen txostenean oinarriturik, Osoko Bilkura honek aho batez 14.645,20 €-ko behin-betiko bermea deuseztatzea erabaki du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA